

# Prest!

**JARDUNALDI TXIN-TXIN**  
**Pertsona nagusien menderotasuna eta zaintza, etorkizunari begira**

> **Urtarrilak 17** – 19:00 – Hika Ateneo  
**Pertsona nagusien arreta eskubidea**  
 • Arantza Utrarego: "Ezoparen diagnostikoa"  
 • Karmele Gurea: "Nagusien arreta bizi zailizatzen"  
 • Maria del Río: "Instituzioen erantzuna epean"

> **Urtarrilak 18** – 19:00 – Hika Ateneo  
**Osasuna, osasugintza eta bizitzaren bukaera**  
 • Enrike de la Peña (doktorea): "Osasugintzaren ikuspegia nagusien arretan"  
 • Luis Morillo (Dunakenezuz Hilekotasunen presidentea): "Heretza duerako eskubidea"

> **Urtarrilak 24** – 19:00 – La Bolsa  
**Nagusien zaintza langileen ikuspuntutik**  
 • Isabel Ochoa: "Nagusien zaintza langileen ikuspuntutik"  
 • Iñaki Varela: "Enakumea eta nagusien zaintza-lanen feminizazioa"

> **Urtarrilak 25** – 19:00 – La Bolsa  
**Eredu alternatiboak eta esperientziak**  
 • Enrike de la Peña (doktorea): "Miranda Babestu: esperientzia partikular berezia"  
 • Iñaki Gallo: "Eskari Herriko Eskubide: Sozalen Karta"  
 • Pensionistak martzen eta Babestu

OHARRA: Herrialde guztietan dagoen dira, ezarritako sarrera bakoitza

**/// pensionistak martzen**

**BERBETAN: IRAIDE URRIZ GOIKOETXEA** BABESTU ELKARTEA

**ERREPORTAJEA: TXIN-TXIN, EL NIÑOREN HOTSA** BARKUA: **AKATZ TALDEA**

181-182-183-184-185-186



# Prest! izan



Harpidetu  
urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:  
Prest! aldizkaria  
Ramon y Cajal 42  
Deustua 48014  
94 447 10 42

EDO HONA:  
bilbokoaldizkariak@gmail.com



Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefona:

Harpidetza  
Txartela



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza








DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Babesleak



# aurkibidea

	Arantza Etxebarria - Gaizka Suarez 	<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Jone Gartzia Gurerra 	<b>Gureak kanpoan</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> txin-txin, El Niñoren hotsa  <i>Errege eguneko El Niñoren zozketako lehen zenbaki saritua oso-osorik –500 dezimo– Agirre lehendakariaren etorbideko 19. loteria administrazioan saldu dute.</i>		<b>6</b>
	Ibarrekolanda BHI 	<b>Eskola</b>	<b>10</b>
	Deustuko lehenengo zubia 	<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	Aratekoaren babesarekin heldu dira neurri gehigarriak 	<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> IRAIDE URRIZ GOIKOETXEarekin  <i>Ama zahar-etxe batera eramatea erabaki zuenetik, nagusien zaintza duin baten alde lanean ari da Iraide.</i>		<b>16</b>
	Azkenean urez bete zen Kanala, 1968 	<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>
	<b>LITERATURA</b> Bilbotik asko duen 'Jenisjoplin' <b>SAREKADA</b> Klik eta klik <b>PINTXODROMOA</b> Aroa-Botikazar gastrotaska <b>KULTUR TXOTX</b> Josu Oleaga eta Maialen Akizu	 <b>barkua bete herba</b>	<b>24</b>

# Prest!

#### Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
DEUSTUA 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com  
uriola.eus  
@uriolaeus  
facebook.com/uriolapuntueus

#### Zuzendaria:

Lur Mallea  
**Erredakzioa:** Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez

**Kolaboratzaileak:** Gaizka Suarez, Arantza Etxebarria, Luken Lamikiz, Garazi Calvo, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola

**Argazkiak:** Javi Garcia - Iñigo Azkona

**Publizitatea:** Ninbe Moreno

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800

**Lege Gordailua:** BI-571-01

**ISSN:** 1577 - 9017



**Arantza Etxebarria Iturrate**  
arratiarra Deustun

## Zahar-gazteak eta gazte-zaharrak

2017a joan jaku. Joan dira Gabonak, Olentzero eta turroi-polboroiak. Eta 2018a heldu da, kontadore guztiak Oan ipinteko sasoi, barrero hasteko momentua. Bildurra senti-  
du dot, denporea oso arin doalako, eta konturatu orduko, beste hamarkada baten sartuko garelako.

Urte barriaren aurrean, nire belaunaldikook linbo moduko baten gagoz. Ez gara gazte-gazteak, baina zahar-zaharrak bez. Zahar-gazteak ete gara? Ala gazte-zaharrak? Personak edadearen arabera moltzokatzeko erabiltzen diran hainbat kategoria pasau jataz burutik: gazteak, erretirodunak, umeak, edadekoak, jaiobarriak, jubiladuak, nerabeak, helduak... Kategoria batzuen mugak argi dagoz, baina beste batzuek hasiera-amaiera lausoak daukiez.

Nire belaunaldia zelan deskribiduko neuke? Ikuskizunetarako sarrerak erosikeran, ni eta nire antzeko diranak heldu moduan kalifiketan gaitue, baina berba horren barruan sartzen dira 30 urteko neska-mutikoak zein 65

urteko personak. Moltzo horretan sartzen ete naz, bada, ni neu be?

Izerdi patsetan hasi aurretik, hiztegiara jo dot, eta han irakurri dot heldua dala fruituez edo pertonez mintzatuz, betetasuna lortu dauana. Betetasuna lortu ete dot nik? Horrek ez nau asko konbenzidu, eta barrero jo dot hiztegiara. Betetasuna bete-bete dagoanaren egoerea ei da, baita asetasuna be. Aseta ete nago ni? Gabonetako jan-edanen ostean, janariz eta edariz aseta egon banago, baina nire egoereaz ari naizela, aseta egon ezkerro, zelan egingo deusat aurre urte barriari? Zelan ipiniko dot kontadorea Oan?

Buruko mina egin jat urte barriko lehen egunetan. Adin-moltzo baten be ez sartzera erabagi dot. Zahar-gazte eta gazte-zahar baten moduan jokatzera. Gazte baten moduan egingo deutset aurre buruko min barriei, eta edadeko baten patxadeagaz egingo deutset agur aurreko urteetako oroitzapen gozoei. Ia 2018an heldutasun osoa lortzen ez dogun.



**Gaizka Suarez Iparragirre**  
abertzalea

## Oinak lurrean

Gogoan dut txikitari nire etxean asteburuetakoa *Gaur Eguna*-ri jarraitzen zion *Hitzetik hortzera* hastean katez aldatzen zenekoa. Nork pentsatuko luke orduan Bertso Txapelketa Nagusiko final batean egongo nintzela bertsoez inoiz egin ez bezala gozatzen. Hilabete pasatxo beranduago egunak sortu zizkidan hainbat hausnarketa aipatu nahi nituzke.

Gaur egun, zein kultura ikuskizunek biltzen ditu 15.000 norbanako ia zortzi orduz zortzi lagun 'poesia kantatuan' entzuteko? Bertsolaritzak tarte bat hartu eta eserlekutik askotan hainbeste kostatzen zaigun zerbait egiten ikasteko aukera eskaini digu: entzuten ikasteko aukera. Gizarte likidoak sustatutako abiaduraren kulturaren garaian garaipen handia.

Bestetik, nola azaldu dezakete herri bezala aitortzen ez gaituztenek beste inon (inguru gertuan ez behintzat)

ematen ez den fenomeno hori? BECen bertso eta txaloen artean herri bat izan genuen taupaka. Propio dugun hizkuntzarekin jolasteak ukazio saiakera horren aurrean herri bezala indartzen gaitu.

Azkenik, batzuek irudika dezaketaren aurka, abenduaren 17koa betiko euskal gizarte landatarrean errotutako Bertsolaritza ghettoaren oso bestelako zerbait izan zen. Super Txoperen YouTubeko *Fashion ranking*-ean 'moderno' artean katalogatuak izango liratekeen protagonisten, egunerokotasun handiko gai sozial mordoia jarri zituzten mahai gaineen: irakasleen grebak kalitatezko hezkuntzaren alde, Santurtziko portutik hasten diren gerra inperialistak, gurera datozenak besoak zabalik hartzearen garrantzia, Errekaleor bezalako gune autogestionatuen beharra, preso politikoak, Katalunia, drogak, prostituzioa... Oinak lurrean ditu bertsolaritzak!







## Jone Gartzia Guerra

**Jatorria:** Ibarrekolanda

**Bizitokia:** Puebla, Mexiko



# “Indarkeria matxistatik ez zaitu ezerk libratzen Mexikon”

*Pueblan, Mexiko erdialdeko hiri handi batean eman ditu Jone Gartziak sei hilabete unibertsitateko truke programa batekin.*

### **Nolakoak izan ziren zure lehenengo egunak?**

Ikaragarri ondo tratatu ninduten, klasekideek, irakasleek, bertako hiritarrek... Alde txar bakarra eguraldia izan zen, uda eurite denboraldia da eta arratsaldero kristoren ekaitzarrak botatzen zuen.

### **Zerk harritu zituen?**

Autobusek... beti doaz jendez gainezka, askotan gorputz erdia kanpooan daukazula joan behar zara, gainera musika topera jartzen dute, gidariak lasterketak egiten dituzte elkarren artean. Eguneroko abentura da autobusa hartzea.

**Testua  
Prest!**

### **Abegikorrek dira mexikarrak?**

Oso. Atzerritarra izanda askotan hobeto zaintzen zaituztela iruditzen zait. Oso irekiak dira, etxera gonbidatzen zaituzte, edozertan laguntzen dizute.

### **Mexikoko zer duzu gustuko? Eta zer ez?**

Mendiak. Puebla 4.000 metrotik gorako hiru sumendik inguratzen dute, eguneroko bisita horiek izatea ikaragarria da. Gainera geografia oso aberatsa eta desberdina da herrialdean zehar, ez da kilometro asko egin behar hondartzan 40 gradutara egotetik 4.600 metroko mendi baten puntan egotera igarotzeko. Antzinako

Mexikoko historia izugarri gustatzen zait, eta uste baino presentean dago egungo gizartean. Gainera, museoak eta gune arkeologikoetarako sarrerak beti dira merkeak edo doan ikasleontzat. Gustatzen ez zaidana intsegritate eta emakumei eguneroko erakusten diguten beldurra dira.

### **Zer ikasi duzu?**

EHUn Leioan Ikus-Entzunezko Hizkuntza ikasten dut, eta Pueblara zinema ikastera etorri nintzen. Karrera berria da hemen, baina oso ondo dago. Ikasgaiak eta materiala askoz hobekak dira EHUn baino.

### **Zelako da egunerokoa zuretzat?**

Eguneroko kontuak ibili behar dut iluntzen duenean ez baita segurua. Autobusak amaitu egiten dira, taxia hartzea ez da oso segurua, kaleetan ez da inor ibiltzen gauez, eta horrek intsegritate gehiago ematen du.

### **Zelako da egunerokoa mexikar gehienentzat?**

Gehienek lan bat edo bi baino gehiago dituzte, baita nire unibertsitateko irakasleek ere. Oso goiz hasten dira lanean, oso berandu amaitu, eta apenas dute oporrik. Etengabe lanean dauden tentsazioa daukat, baina pozik, 'toka-

tuko' balitz bezala. Haien egoera onartu eta ahal bezala egiten diote aurre.

### **Narkotrafikoa eta feminizidioa nabarmena al da?**

Oso... Narkotrafikoa batez ere iparraldean da nabarmena, eta egunerokoan Pueblan behintzat ez da igartzen. Baina indarkeria matxistatik ez zaitu ezerk libratzen. Gainera, mundu guztia arduratzen da eguneroko emakumei beldurra sentitu behar dugula gogorazteaz: ez ibiltzeko bakarrik, ez joateko inora gauez, ez hartzeko taxirik, ez hartzeko Uberrik, ez egiteko hau edo bestea... Eta horrek izua zabalitzen du gizarte osoarengan.

### **Lurrikara gogorak sufritu zuten Mexikoko 2017ko irailean. Berreskuratu da herria?**

Okerren Chiapas eta Oaxaca herrialdeetan jo zuten, herri txiroetan. Pueblan ere gogor jo zuten irailaren 19ko lurrikarak, eraikin asko bota zituen eta nahiko hildako izan ziren. Hurrengo egunak kaosa izan ziren, laguntza-olde ikaragarria etorri zen herritar guztien eskutik, baina aldi berean tentsioa igartzen zen hirian. Orain egoera apur bat normaldu da, baina herri askok suntsituta jarraitzen dute, eta lurra oraindik ere mugitzen ari da.

e

erreportajea

txin-txin, El Niñoren hotsa



## TXIN-TXIN, EL NIÑOREN HOTSA

*Errege eguneko El Niñoren zozketako lehen zenbaki saritua oso-osorik –500 dezimo– Agirre lehendakariaren etorbideko 19. loteria administrazioan saldu dute. Guztira, 100 miloi euro banatu dituzte. Ondo banatu ere.*

**Testua:** Lur Mallea  
**Argazkiak:** Yvonne  
Fernandez / Luis  
Angel Gomez

Saritu asko hurbildu dira Deustuko 19. loteria administrazioa eskerrak ematera. Denen artean, Guillermo gerenteak emakume bi ditu gogoan. Bata, dibortziatu ostean bi seme-alabarekin gurasoen etxera bueltatu behar izan duena eta, bestea, etxea galtzeko zorian dagoena. Bien bizimoduak hobera egingo du aurrerantzean.

Dutxan zegoen Guillermo El Niño zozketako 05.685 zenbaki potoloa bonbotik atera zenean. Bere bikoteak zenbakia esan zionean, adarra jotzen ari zela pentsatu zuen. Ziztu bizian irten behar izan zuen. Agirre lehendakaria eta Luis Power kaleen izkinatik gertu dagoen loteria saltokira iritsi zenerako lagun ugari zegoen inguruan. Askok ezin zuten barrea ezkutatu.

Sari nagusiko 500 dezimoen artean, 133 Arangoitin saldu dituzte, Ziortza tabernan, eta gainerakoak lehiatilan bertan. Zenbait dezimo zenbaki horretako abonatuak diren ohiko bezeroei. Batzuk 20 bat urte darumate 05.685 zenbakiarekin jokatzeko. Guillermoren hitzetan, “iraunkortasunari esker irabazi dute”. Pozgarria da “jende askori loteria tokatzea, zenbaki horrekin aspalditik jokatzeko dutenak saritzea eta, ordenak inporta gabe, arazo ekonomikodunak saritzea. Zoragarria”. Ogasunak kendutakoarekin, dezimoko 160.000 euro eskuratuko dituzte. “Ez da lana uzteko bestekoa, baina hipoteka ordaintzeko eta lasaiago bizitzeko balio du”. Zehatz kalkulatzeko zaila den arren, Guillermoren arabera, 300 bat dezimo saritu Deustun geratu dira, “diru asko”.





Urtarrilaren 8tik bezero-oldea dute loteria administrazioan. Geratu gabe lanean gogor ari dira hiru langileak, atsedena hartzeko ia tarterik gabe. Hurbiltzen diren denek nahi dute 05.685 zenbakia erosi. Guillermoren ustez zentzugabea da, “tokatu berri deanean”. Nabarmen egin du gora salmentak eta, ondorioz, lehen egunetan Loteria y Apuestas del Estadori (LAE) saltzeko dezimo gehiago eskatu behar izan dizkiote.

laz zoria bitan izan zuten bisitan, 2.500 euro baino gehiagoko bi primitibarekin. Beste bitan aurten, 17 egunetan, 4.000 euroko primitiba bat eta 2.600 euroko bonoloto boleto bat bertan zigilatu dituzte. El Niñorekin zoriak ez du alde egin, hortaz. Inguruan dabil, eta hori “negozioaren mesedetan da”.

### **Aurrera eta gozatzer**

“Laino artean” eman ditu urtarrilaren 6tik aurrerako egunak Ziortza tabernako Tommyk. El Niño loteriako zenbaki sarituraren 133 dezimo bere tabernan saldu zituenetik –dezimoko 200.000 euro– “lur gainean oinak jarri ezinik” dabil. Ez oinak ez burua ez ditu bere lekuan, dioenez. Hedabideen presioaren ondorioz, astebetetz taberna itxita izan du “lasai egoteko” modu bakarra zue-

lako. Lasaitu ostean itzuli da lanera, duela 20 urte zuzentzen duen Ziortzako barrara. “Berdin jarraitzen dut, lanean”, esan dio Prest! aldizkariari. “Aurrera egitea, jendearekin ondo moldatzea, orain arte moduan, eta pilatutako ‘koltxoiarekin’ gozatzea”, horixe da Tommyren bide-orria. Seme-alaba bi dauzka. Bat etxetik kanpo, bizimodua “konponduta”. Bestea, 19 urteko mutila. Bi dezimoren diruarekin, besteak beste, semeari lagunduko dio. Argi du El Niñorekin eskuratua gastatu gabe ez duela utziko.

Poz handia du auzotarrengatik. Euripean besarkatzen, negarrez, barrezka, saltoka... gogoratzen ditu urtarrilaren 6a burura datorrionean. Blai bukatu zuten, eta ordutik katarroa ez zaio sendatu. “Krisi garaian, Arangoiti bezalako langileen auzoko bizilagunentzat nahiko laguntza da. Denoi mesede handia egingo digu, baita niri ere”. Poza are handiagoa da saria oso banatua izan baita. Besteak beste, zorionekoak dira 05.685 zenbakiarekin astero jokatu ohi duten 48 lagunak, ordaindu barik beste bi dezimo gordeta zuten auzotarrak, Deustuko hiruzpalau tabernari izan ezik gainerakoak, dezimoa trukatzeko ohitura dutelako, po-teoan ibili ohi diren betiko bezeroak edota

**“Hedabideen presioaren ondorioz, astebetetz taberna itxita izan du”**



taldean dezimo bat erosita zuten hainbat kuadrilla. Gehien-gehien zenbaki sari-tuaren bost dezimo ditun bezero batek irabazi du. Tommyk jakin duenez, boletu bat senide bati eman zion. Eta izan da sari gabe geratu den ohiko bezeroren bat edo beste ere, “tabernan sartu, hizketan hasi, eta dezimoa erostea ahaztu duena”.

Ziortza tabernan astero 05.685 zenbakia-  
rekin jokatzen jarraituko dute aurreran-

tzean ere. 48 lagun baziren Errege eguna baino lehen, egun 50 dira. Pertsona gehiago ere hurbildu dira abonatu izateko interesarekin, baina “ez da posible” Tommyren arabera, “loteria administrazioan gordetzen dizkidaten dezimoak mugatuta daudelako”.

Bezeroak, ordea, ez dira ugaritu Ziortza tabernan. “Betikoak daude, onerako eta txarretako, betikoak gara”, dio Tommyk.



## Lasaiago

Urtarrilaren 6an, goizean goiz pintxoak prestatzera joan zen Deli Arangoitiko El Rincon tabernara. Ostean, etxean familia-rekin erregetako opariak zabaltzen ari zela, bere alabak lagun min baten whatsapp mezua jaso zuen bere aitari loteria tokatu zitzaioela esanez. Deli susmatzen hasi zen, “zenbaki horrekin aspalditik jokutzen dugulako auzotar askok”. Ezin zitekeen bestela izan. Kalera jaitsi eta tabernara lanera zihoala konturatu zen “telebistan gainerakoei bakarrik gertatzen zaiena guri ere gerta dakigukeela”. Negar batean hasi zen bere senide eta auzokideekin batera. Harrezkero, Tommy bezala, Deli ere hodei artean dabil, lur hartu gabe, “tontotuta”. Lehenengo egunetan “lokartzeko beldur” zela aitortu du, kosta zaio benetan gertatu dela barneratzea eta ondo lo egitea.

Irabazitakoari esker aurrera baldintza hobean egingo dute bai berak bai bere etxekoek. Izan ere, bere bikotearekin batera gobernatzen duen tabernatik kanpo ari da lanean Deli, “ostalaritzak ez duelako bizitzeko beste ematen”. Hilabete batzuk lehenago auto bat erosteko bere amak diru apur bat utzi zion. “Pentsa, zein zen gure egoera”, dio. Horregatik, berehala gorde du dezimoa bankuan. Hurrengo egunean kobratu zuen. Tabernaren mailegua kentzea izango da bere lehentasuna, baina geldiro ordainduko du, “ez baitut interesik mailegua kolpetik kentzeko”. Beraz, aurrerantzean, tabernako irabaziak ez dituzte maileguaren ordainketara bideratuko El Rinconen, “etxerako izango dira”.

Dirua etorri eta joan egiten bada ere, Deliren esanetan, El Niñori esker, arangoi-tiarrak lasaiago biziko dira. “Lehen baino sakonago hartuko dugu arnasa eta sakonago egingo dugu lo”.

## Antzera

El Niñoren zozketa telebistan ikusten ari zen Sebas bere alaba Fatimari laguntza eskatu zionean bere anaia Pacorekin Ziortza tabernan erdibana erositako boletoaren zenbakia ziurtatzeko. Orduan irten zen bonbotik 05.685 zenbakia eta handik gutxira deika zebilen Paco berria emanez. Oihuka hasi ziren etxean zeuden senideak, eta Ziortzara ospatzera hurbiltzea erabaki zuten. “Sekulako giroa” zegoen, auzokideak, telebista kamerak... Oraindik ere pentsaezina iruditzen zaio Fatimari bere aitak eta osabak txikiteoan errondan ari zirela erositako boletoak saria izatea. Eta auzotarrei erreparatuz, “oso baikorra da Arangoiti bezalako auzo umil eta langilearentzat horrelako berri on bat”.

Dirua gordeta dute jada. “Ondo dago, baina ez da suziria jaurtitzeko modukoa. Antzera jarraituko dugu”. Momentuz dirua gelditu edukitzea erabaki dute, “presarik ez” dutelako. Zatitxo bat hurrengo egunean jatetxe baten gastatu zuten. Sebas eta Paco senideak bazkaltzera gonbidatu zituzten.

Aste zoroa izan zen hurrengoa. Bigarrena normalagoa. Normala hirugarrena. Arangoiti itzuli da ohiko eguneroko bizimodura. Askorentzat askoz lasaiagoa izango da.

**“Deli susmatzen hasi zen, ‘zenbaki horrekin aspalditik jokutzen dugulako auzotar askok’”**



www.renault.es / 902 333 500

## RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA  
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

RENAULT presentatazioa de **EIF**





# ‘ZERGATIK EZ’ BIDAIA

*Bidaian zehar hainbat herri polit ezagutu ditugu; Oiartzun, Baiona, Sara eta Zugarramurdi, besteak beste. Bide guztiak izan dira interesgarriak, baina mendian galtzea izan zen txarrenetarikoa, baina inoiz ahaztuko ez duguna.*

Ibarrekolanda BHIko lagunok urtarrean egin dugun ‘Zergatik ez’ bidaian sorginekin kontaktuan egon gara, leku magikoak ezagutu ditugu eta gure arteko harremanak gehiago indartu ditugu. Bidaia laburra baina ahaztezina izan da, denbora luzez gogoratuko duguna. Eskerrik asko parte hartu izan duten sorgin eta azti guztiei, itzelak zarie!!! Lokatza da bide bakarra.

1611. urtean Zugarramurdiko biztanleentzat garai txarrak ziren lehen hiritar batzuk epaitu zituzten Logroñon, eta gero hara laguntzera joan zirenetako batzuk harrapatu eta kartzelan sartu. Gaur badakigu zer triskantza izan zen hura historialariei esker.

Testua eta argazkiak  
Ibarrekolanda BHI




Garai hartan Euskal Herriko hiriak sortzen ari ziren eta jauntxo eta elizatik independizatzeko nahiko lan izan zuten hitarrek. Inkizizioaren jazarpena basatia izan zen. Askotan auzokideen arteko salaketak eta kontu garbiketak izaten ziren. Axular idazleak lagundu zuen bere pregoiekin salaketak gelditzen eta neba-arreben artean bizikidetzak sustatzen. Garai onak ziren euskaldunentzako haiek balea-arrantzale bikainak ziren eta mundu osoan zabaltzen ari ziren dakizuen moduan: Ternuaraino.

Zabalduz eta zabalduz, balea-arrantza mundu guztira zabaldu zen eta baleak desagertu. Ikusi ahal izan dugu itsasoak mugarik ez duen bezalaxe, gure herria erdibitu eta tratatzen duen muga administratiboa ere mapetan baino ez dagoela. Hala ere, muga ezarri duten horiek duten indarra ezin dugu gutxietsi. Horretaz jardun zuen gurekin Etxepare Lizeoko zuzendariak baita frantses erakundeek jartzen dizkieten zailtasunez. Dena dela, berak azaldu zigun bezalaxe gizarte zibila antolatzen denean, ekinaren ekinez, erronkak lortu egiten dira.

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiegu Arritxulo (Aiako parkeko aterpetxea) eta Zugarramurdiko Graxiana aterpetxeko langileei emandako zerbitzu eta tratuagatik eta gurekin izan duten pazientziagatik. Dena primeran egon da, esperientzia oso ona izan da ikusi dogun herri guztiak ikustea, barreak, mendian galtzea... Bidaia ahaztezina. Eskerrik asko eta ondo ibili!





## ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN  
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA  
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49  
artebilbao@terra.es www.artebi.es

## YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





# DEUSTUKO LEHENENGO ZUBIA

*Gauza jakina da Deustuko zubia  
1936an zabaldu zutela eta hori baino  
lehen ez zela izan ibaiaren gaineko  
zubirik. Eta hala ere, Deustuko  
lehenengo zubia topatzeko pare bat  
mende egin beharko dugu atzera, XVIII.  
mendera. Ontziolako zubia esaten  
zioten.*

**Testua:** Hektor Ortega

Zehatzak izanez gero, Deustuko lehenengo zubia Artxandako troketatik behera amiltzen diren erreka horietako baten gainean zeharkatzeko eraikiko zuten. Adibidez, Arangoitiko erreka gaineko zubitxoak zegoen Elexalden, elizatik hur. Baina ur-latsen gaineko pasabide apal horiek bazter utzita, nork ez luke esango Deustuko zubia izan zela lehenengoa?

Bada, beste bat egon zen, zaharragoa. Deustuak eduki zuen lehenengo zubi garrantzitsua. Agiri batzuetan “el puente del Astillero” moduan ikusi dugu aipatua. 1731n Bilboko Kontsulatuak Juan Bautista Ibarrari eman zion Deustuan kai berria egiteko lanaren ardura. Lanak, zehazki, ondoko hauek ziren: zubi berri bat eta ehun metroko kaia.

Argitu dezagun: zubia egin behar zuen, baina zubia ez zen Ibaizabaleko manda biak lotzeko, ibaiaren eskuin ibarrean egiten ari ziren kaia luzatzeko baizik. Artean han bazen zubirik edo antzekorik, lan enkarguan zehaztu

baitzuten bertan bazegoela arku bat: “Pegante y unido al arco antiguo que allí ay”. Horregatik, zubiaren ezaugarriak ezarri zituztenean, arku zaharra baliatu zuten: Juan Bautista Ibarrak egin behar zituen “cuatro arcos nuevos unidos con el antiguo que queda referido de buena manposteria sobre zimientos firmes de zinco pies de grueso y su esquina rosca en el remate de piedra labrada, antepechos también de manposteria de tres pies de alto y dos de grueso; y en el remate de ellos con chapadura de piedra labrada; que ha de llebar un grampon de fierro emplomado en cada junta de dicha chapadura”.

Eta lau arku berri haiek “han de ser azia la parte de la ria y de la misma altura, largura y grueso que el antiguo”. Hortaz, arku zaharren berdinak eta hari atxikita “de manera que todos zinco han de estar higuales formando un puente sin diferenciarse unos de otros en cosa alguna”. Bost begiko zubia, beraz. Ez zen makala.

## **Marea errotarako**

Zubi handia eta ez zen ibaia zeharkatzeko. Zertarako ote? Eskritura hartan bertan ere argitu zuten, baldintzetako bat baitzen “dejando libre el ojo el arco correspondiente para la introduzion del agua de la ria azia la parte del molino”. Alegia, kaia uretarako hesia izan arren, zubiaren azpitik ura sartu behar zen, errotarako. Zein errota, baina?

Bada, Olabeagako marea errota. Gutxienez XVI. mendetik zegoen bertan, zubitik hurrean. Ibaizabaleko ertzetan ez ziren gutxi uren eguneroko gorabeherak baliatuz errotari eragiten zioten eraikinak. Olabeagakoaz gain, Deustun beste bat egon zen, Larraurin, baina XVI. mendean bertan galdu zen. Olabeagakoak, oster, iraun egin zuen, eta XVII. mendean zehar jardunari ekin zion. Doneperriagako dorretzeko maiorazkoarena zen eta errotari maizterren esku laga ohi zuten. 1722an, agirien arabera, errota galduta zegoen eta ugazabak baserri moduan ematen zuen errentan.

Hortaz, zubia egin zutenerako galduta zegoen. Baina errotak uretarako eskubidea zeu-



kan. Eta Ibaizabaleko ertzetako kai berriek uren eta lehorraren arteko harresia ziren heinean, ur-jarioa oztopatzen zuten. Kai berriek padurak lehertzeko lehenengo urratsa ziren; ondoren, lan nekeza eginda, Deustuko ogegnak agertu ziren, solo emankorrak. Baina Ola-beagako marea errotaren parean, urari bidea utzi behar izan zioten, inoiz errota atzera ere martxan jartzen bazuten.

1898ko abuztuan Deustuko Udalak eskabi-dea egin zuten zubiko begiak oholez edo alanbraz itxi zituzten: “Que se coloque una cerradura bien sea de tablas o de alambre o en la forma que se crea más conveniente para cerrar los ojos del puente por la parte que da a la ría en el punto llamado El Astillero”. Baina

ezezko erantzuna eman zuten Portuko Juntak: “La existencia de los pontones de Deusto se debe, como es sabido, a una antigua concepción hecha sobre los terrenos marginales contiguos, a favor de los que se halla establecida la servidumbre del paso de las aguas de la ría, por cuya razón la Junta no ha podido cerrar aquel paso para continuar la línea del muelle, interrumpida en dicho punto, limitándose a conservar y reparar los pontones existentes”.

Zubiak urte batzuk gehiago iraun zuten eta argazki zaharretan erraz antzematen da. Azkenean, zubia kai bihurtu zuten. Orain, inguru horretan, Deustuko kanalaren azken zatia induskatzen ari dira.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





## ARARTEKOAREN BABESAREKIN HELDU DIRA NEURRI GEHIGARRIAK

Deustuibarrako auzotar batek Arartekora jo du auzoan zegoen segurtasun faltagatik kezaka. Abandonatutako pabiloi industrialetan lo egiten duten pertsonak auzoan zehar ibiltzearekin lotzen du lasaitasun eza. Egoerak okerrera egin du, auzotarraren arabera, pabiloiak eraitsi diren neurrian, etxegabeak etxebizitzetara hurbildu direlako. Arartekoari aurkeztutako kexan aipatzen denez, arazoa soziala da, eta perspektiba horretatik irtenbidea emateko beharra dago, prebentzio eta integrazio alorretik, pabiloietan oso egoera txarrean bizi direlako eta pertsona horietako batzuk jarrera biolentoa dutelako.

**Testua**  
Lur Mallea

Bilboko Udalak kexaren berri izan duen ordura arte hartutako neurrien berri eman dio Arartekoari. Esaterako, argiztapena handitu, obretan hesi transparenteak kokatu, hutsik geratu diren lursailetan jarduera sortu, Frank Gehry zubian zaintzarako bideokamera baten ezarpena aztertu edota Udaltzaingoarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen duen mugikorrerako aplikazio bat sortzea. Baina neurriok ez dira nahikoa ez kexa aurkeztu duen auzotarrantzat ez Deustuibarrako auzo elkartearentzat. Garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzu eskasaren ondorioz sortzen den inkomu-

nikazioa jotzen dute segurtasun arazo nagusitzat.

Kexaren ostean, Udalak zenbait neurri gehigarri adostu ditu. Bestek beste, Gehry zubira sarbide zuzena ezartzea, zig-zag formakoaren ordeztu, uztailean eta abuztuaren obra zaintzeko hartutako neurriak luzatzea, San Pablo elizaren atzeko jolas parkean zaintza berezia egitea, Udala eta auzotarraren arteko komunikazio kanal bakarra finkatzea, urbanismo obra azkartzea eta pabiloietan lo egiten duten pertsonekin 'lan egitea'. Neurriok ahalik eta bizkorren ezartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Arartekoak baikorki baloratu du Bilboko Udalak agertu duen "jarrera irekia" eta aurretiaz hartutako neurriei gaineratu dizkien "neurri gehigarriak". Arazo "komplexua" da Deustuibarran bizi dutena Arartekoaren esanetan, "planifikazio egoikia eta Udaleko sail guztien esku-hartzeko koordinatua eskatzen duena bai segurtasun bai gizarteratze arazoei irtenbidea emateko". Azkenik, Udalarik bi eskakizun egin dizkio Arartekoak, bata, auzotarraren elkarriketa mantentzeko eta, bestea, Deustuibarrarako adostutako neurrien jarrarapena egiteko.





# DEUSTUKO IÑAUTERIAK

*Otsailaren 2tik 4ra ospatuko ditugu aurten deustuarrok inauteriak, beraz joan (hasi) zuen karroza eta mozorroak prestatzen.*

Deustuko inauterien 41. urteurren hone-tan, ostiraletik igandera arte iraungo duen egitarau oparoa prestatu dugu Deustuko Jai Batzordeko kideok, adin eta gustu guztiak asetzeko.

Ohitura den moduan, ostirala izango da Deustuko Kuadrillen gaua, bertan, luntxa karaokea eta tabernetatik zeharreko potea girotuko duen elektrotxaranga batekin ere dantzatzeko aukera izango dugu. Gauaren amaieran, kuadrilla mozorrorik polit eta originalenari saria emango zaio, baldintza bakarra aukeratutako gaiarekin zerikusia izatea da. Prest al zaudete horiz (hori kolorez) mozorratzeko?

Larunbat goizean, umeentzako tailer eta jolasak antolatu ditugu Done Petri plazan. Eguerditik aurrera hurbildu etxeko txiki-ekin kareta, marrazkiak eta jolasak egi-tera! Gainera berrikuntza moduan, Mikeldi eta Gure Herria taldeek Lantzeko inauteriak dantzatzeko aukera aparta bermatuko digute, 12:30ean Done Petri plazako kiosko parean.

Larunbata da gure inauterietako egunik indartsuena, izan ere dantzak eta taile-rrak amaitu bezain laster bazkari herrikoia hasiko da, betiko moduan aukera bega-noarekin, Tintigorri konpartsaren eskutik. Bazkaria amaitu ostean, urteroko bingo musikatua alde batera utzi eta Talka bikote akustikoa izango dugu eszenatoki gainean, bazkalostea girotzen. Ez arduratu euriare-kin, karpa erraldoia jarriko baitugu fron-toian bertan.

Arratsaldean zehar indarrak hartu eta gauerako gorputzak berotzeko, 20:30ean erromeria dantzatzeko aukera ere izango da, plazan bertan. Gaueko 22:00ak aldera kontzertuei hasiera emango diegu, dan-tzan eta kantan amaituko baitugu horren luzea den eguna.

Igande goizean, nekea alde batera utzi, eta urteroko desfile nagusia egingo dugu, San Felizisimotik, Done Petri plazara arte. Izen emateko, 11:30etik aurrera egongo gara bertan zuen zain. Animatu zaitzete desfilean parte hartzera, kuadrillaka, tal-deka, konpartsaka, banaka... Mozorroen sari banaketa egin bezain laster emango diegu amaiera inauteriei, eta jaietan berriz elkar ikustea espero dugu.

Inauterietan berrikuntza gutxi egon arren, esan beharra daukagu geroz eta gehiago direla Deustuko Jai Batzordeak antolatu-tako ekintzetan era batean edo bestean laguntza bermatzen duten taberna, eta saltokiak. Aurreko urtean, Mozorrotu le-hiaketa antolatu genuen auzoko tabernen artean, aurten ere lehiaketarekin aurrera jarraitzea erabaki dugu, geroz eta taberna gehiagorengana heltzeko asmoz. Horrela, Done Petri ezik, Deustu guztia mozorra-tzea lortuko dugu!

## **Erriberan, San Inazio eta Ibarrekolandan**

Deustuko inauteriak amaitu eta gehiago mozorratzeko gogotsu geratu bazarete, ja-kin Erriberako inauteriak otsailaren 17an ospatuko direla, San Inazio eta Ibarreko-landakoekin batera.

**Testua**  
Deustuko  
Jai Batzordea

# D

## berbetan

IRAIDE URRIZ GOIKOETXEArekin

*Babestu elkarteko zuzendaritzako kidea*

Testua: Nerea Olaziregi

Argazkiak: Iñigo Azkona

# “Zaintza eredu berriak behar





## ditugu, ez zaharren aparkalekuak”

*Ama zahar-etxe batera eramatea erabaki zuenetik, nagusien zaintza duin baten alde lanean ari da Iraide. Babestu elkarteak zuzendaritzako kidea da eta, senide askorekin batera, pertsona nagusientzat arreta zuzena handitzeko eta asistentziaren zerbitzua hobetzeko borrokan ari da.*

**Bizkaiko zahar-etxeetako langileak greban zeudela sortu zen Babestu elkarteak.**

**Zertarako?**

2016an sortu ginen testuinguru horretan, bai. Langileak kalitatezko zerbitzu bat eskaini ahal izateko lan baldintzak eskatzen ari ziren, familiok ere gabezia handiak ikusten genituen gure nagusien zaintzan, baina bakarrik ari ginen, ez zegoen gure artean inolako loturarik. Harremanetan hasi eta elkarteak sortzea erabaki genuen gure nagusien zaintza duina lortzeko asmoz.

**Langileek patronalarekin lortutako akordioa eta gero, hobekuntzak igarri dituzue?**

Ez, gure senideek egoera berean jarraitzen dute. Lan hitzarmenarekin lotutako akordio txiki batera heldu dira, baina guretzat garrantzitsuena zuzeneko arretan langileen ratioak igotzea da, eta momentuz ez da aldaketarik egon. Batez beste, egunez hamaika edo hamabi langile dau-

**“Guretzat garrantzitsuena zuzeneko arretan langileen ratioak igotzea da”**

### “EAJko ordezkari bati bihotza apurtuta nuela esan nion”

#### Zer sentitzen duzu zure amak behar duen zaintzarik ez duela ikustean?

Oso gogorra da, kexak jartzen ditut, baina inpotentzia handia sentitzen dut. Egoitzak kudeatzen dituzten enpresek ez digute kasurik egiten, instituzioentzat dena dago ondo, eta elkarri pilota pasatzen diote. Arartekoarekin berdin. Arazoa oso larria da, baina ez du inork bere gain hartu nahi.

#### Izandako elkarrizketen artean bateren bat gogoratzen duzu bereziki?

Hainbat bilera egin eta gero, EAJko ordezkari bati bihotza apurtuta nuela esan nion bere jarrerara itxia ikusita. Enpresariekin bildu garenean beraien harrokeria eta larzeria ere oso gogorra izan da. Zahar-etxe gehienetan kartelak jartzea debekatu digute.

#### Momentu on eta goxoak ere izango ziren.

Bai, asko. Indarra eman dit Babestun egoiteak eta Estatu mailan ere erreferentzia garea ikusteak. Ez ginen jaio langileen greba garaian egoteko soilik, gure borroka egoitza guztietara zabaltzeaz gain, etxeetan ere egiten diren zainzetara zabaldu nahi dugu.



de 120 erabiltzaileentzat, eta gauez bi. Zazpi minutu dituzte pertsona bat altxatu, garbitu, jantzi, ohea egin eta logela batzeko. Baldintza horietan ezinezkoa da harre-  
ra egokia ematea.

#### Zer suposatzen du horrek pertsona nagusien egunerokotasunean?

Nire amaren kasuan adibidez, bizi den solairuan beste 24 pertsona daude, hiru izan ezik besteek menpekotasun osoa dute, eta guztientzat hiru auxiliar ari dira lanean. Aurreko egunean, bi langile baino ez zeudela ikusi nuen. Salaketa jarri eta Eusko Jaurlaritzaren ratioen barnean zeudela erantzun zidan enpresak. Baldintza horiekin, goizeko 6:30ean hasi behar dira lehenengoak ohetik altxatzen, gero egun osoan sofa batean erdi lo emateko. Afaria 18:45ean izaten da udan zein neguan. Pixoihal aldaketarako ere ordutegi zehatza

dute, birritan topatu dut ama kaka eginda zegoela afaltzera eramaten.

### Zenbat ordaintzen dute egoitza batean egoteagatik?

Daukaten guztia. Dirua aurreztuta izanez gero, hilerio 3.000 euro kobratzen diete. Behin agortuta, bakoitzak duen pensioarekin geratzen dira, eta 1.200 euro uzten diete urtean beraien gastuetarako.

### Zer eskatzen diezue instituzio publikoei?

Zuzeneko arretan dauden langileen ratio handitzea behar dugu, besteak beste. Zahar-etxeen eredu publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa izateko urratsak eman behar dituzte. Une honetan, Bizkaian 9.000 pertsona nagusi inguru bizi dira 147 egoitzatan, horietatik lau publiko, 28 pribatu eta 115 kontzertatuak dira. Gaur egun, erresidentzien %70 enpresa pribatuen esku daude eta, negozioa dira, eta instituzioei ez zaie interesatzen egoera hori aldatzea. Gizarte zerbitzuak eztabaidatzen eta erabakitzen diren foroetan parte hartzeko aukera aldarrikatzen dugu.

### Eta alderdi politikoez zer diote?

Uztailean Bizkaiko Batzar Nagusiko alderdiekin hainbat bilera egin genituen adierazpen instituzionala lortze aldera. Ez genuen ezer lortu. Podemos eta EH Bildurekin bat egin genuen, baina EAJ, PSE eta PPrentzat sistemak ondo funtzionatzen du, kexa gutxi dagoelako. Ez gaituzte gu elkartuta ikusi nahi, arerioak gara beraiantzat.

### Ez da salaketa nahikorik egiten?

Ez, jendea beldur da. Guk beraien eskubideen alde zarata egin behar dugula uste dugu. Bakoitzari gertatzen zaiona guztiei gertatzen zaie. Gure senideentzat zainketa duina izatea nahi dugu eta ez aparkaleku bat.

### Sentsibilizatzeko jardunaldi batzuk antolatu berri dituzue. Jendartea gaiarekin kezkatuta dagoela uste duzue?

Denetarik dago, errealitatea gertutik eza gutzen dugunontzat egoera oso kezka-garria da baina, orokorrean, gizarteak ez ditu pertsona nagusiak aintzat hartzen, zahartzaroa tabu bat da, heriotza bezala. Umeak izango balira, arazoa aspaldi egongo zen konponduta.


### Zaintzan aritzen diren %90 emakumeak dira. Beraien lanak behar duen aitormena duela uste duzu?

Ez, inondik inora. Are gehiago, enpresariak beraien egoeraz eta lana aurrera ateratzeko ahalmenaz baliatzen dira. Gehienek prekariedade baldintzetan eta presio fisiko eta psikologiko handiarekin jarduten dute.

### Gaur egungo ereduaren aurrean, badago alternatibarik?

Badago, bai. Eta jardunaldietan hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan dugu. Guk kooperazioa eta pertsona nagusien beharretan oinarritutako eredu integrala, hurbila eta parte-hartzailea aldarrikatzen dugu. Eta horretarako, diru-inbertsio gehiago behar da, bai zaintzarako baliabide gehiago izateko, bai familia askoren gastuak txikitzeko.

**“Umeak izango balira, arazoa aspaldi egongo zen konponduta”**





## Emakumeen aurkako bi eraso izan dira

Azken hilabetean bi eraso matxista egon dira Deustun. "Berriro ere emakumeen kontrako indarkeria gure herriko kaleetan", salatu du Pare talde feministak. "Bi emakume eguneko momentu eta esparru desberdinetan erasotua, eremu pribatuan zein publikoan. Edonola ere haientzako seguruak izan beharko luketen espazioetan". Eraso hauek ez dira zerbait isolatuak, "ez dira emakume bakar bati momentu puntual batean gertatzen zaion eraso". Pareren hitzetan, "hau arazo estruktural bat da, emakume guztiok emakume izateagatik eta gizarte kapitalista eta heteropatriarkal honetan bitizteagatik pairatzen duguna". Horregatik, Parek "sistema honekin apurtzera eta erasoen aurrean gogor erantzutera" dei egin du. "Gure auzoan aske eta seguru sentitu nahi dugulako", autodefentsa feministan dihardutea ezinbestekotzat jotzen dute. Argazkia: Ekuador Etxea.



## HAURRESKOLA

### Handitu egin dute San Inazioko Haurreskola

Handitze-lanei esker, haurreskolak 426,10 metro karratu gehiago ditu, eta aurrerantzean, guztira, 97 ume hartu ahal izango ditu. Orain arte baino 34 ume gehiago. Gainera, hainbat baliabide berri erantsi dizkiote, hala nola, erabilerari antzeko gela, barneko jolas-aretoa, sukaldea, biltegia, garbiketa-gela eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako komuna. San Inazioko Haurreskola 2011. urtetik San Inazioko HLHI ikastetxeko bigarren solairuan dago kokatuta. Hegal batera zabaldu ditu bere instalazioak, hegal hori erabili gabe eta libre baitzegoen orain arte. Bigarren solairu horretako beste alderdia libre dago oraindik, "inoiz ere handitze-lanik egin nahi bada", Udaleko ordezkariak adierazi dutenez. Handitze-lan hauek 385.000 euroko kostua izan dute, eta lau hilabete eta erdian egin dira.



## GAZTE LOKALA

### Grafiti lehiaketa

Deustuko Gazte Lokalak grafiti lehiaketa antolatu du otsailaren 17an. Sei bat grafiti egile elkartuko dira, eta irabazleak aukera izango du Gazte Lokaleko eskaileretan bere sormen-lana egiteko. 12-00-17:00 bitarteko ekimena izango da, eta grafitiez gain rap kantariak, breakdance dantzariak, bazkaria edota esperimintazio txokoa ere izango dira. Udalaren utzarazteko aginduari dagokionez, Gazte Lokaleko lagunen esanetan, "ez dago berririk", eta gaineratu dute, "guk gure lokala autogestionatzen jarraituko dugu". Gabonetan, hiru eguneko antolatu zuten *Luzarra O, iraganetik etorkizunera* argazki-erakusketak arrasketa handia izan zuen, "jendetza hurbildu zen ikustera", eta hori dela eta, beste uneren baten erakusketak berriro ere ikusgai paratuko dute, "Deustuk eta Gazte Lokalak izan duten bilakaera" herri-tarrekin konpartitzeko.




## Epaiaren zain daude zortzi deustuar

Euskal Herriko eta Madrileko 50 gazteren aurkako epaiketa, tartean zortzi deustuar, urtarrilaren 9ra mugatu zen Alcalá de Henaresko epaitegian. Fiskalak eskaerei eutsi zien, bosna hilabeteko espetxe zigorra, hain zuzen ere, 2015ean Auzitegi Nazionalako areto batean desordena egiteagatik. Auzipetuak izan ziren deklaritzen lehenak. 2015eko epaiketan publiko gisa zeudenez ez zutela txalotu eta ezer ez zekitelako azaldu zuten. Auzipetuak zirenek, berriz, 'herri harresia' protesta sinboliko

gisa egin zutela adierazi zuten. Ostein, AVTko abokatuek lekuko gisa deklaratu zuten. Publikoko jendea oihuka hasi zela esan zuten, aulki gainera igo ez ote ziren gaineratu zuelarik. Epaietaren uanean aretoan zeuden bi polizia ere eman zuten euren lekukotza, publikoa pixkat bat tiratu eta ondoren euren kabuz irten zirela azalduz. Defentsako abokatuek adierazi zuten ezin dela argudiatu publikoko kideetako bakoitzak txalotu zutenik, eta guztien absoluizioa eskatu zuten.





Urtea: 1968

Txema Luzuriaga

## *Azkenean urez bete zen Kanala*

Haxe da Deustuko Kanalak zuen itxura inauguratu zen urtean, 1968an. Orduan heldu zen betebetan itsasadarreko ura Kanalera.

Desagertutako Gor-mutuen Eskolaren atzean, Madariaga etorbidean, Urkiza baserria ikus daiteke. Argazkia: Bilboko Udal Artxibategia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~**  
**TABERNA**  
 BETI ZIZEKAN SUA  
 argi bat izeki zen zeruan  
 su horidun sugarra ostopo  
 Itzalsuen atzean  
 Ramon & Kaja 26  
 DEUSTU

**ATXURI**  
**TABERNA**

Luzarra 1  
 Deustu

946 75 40 17

**Nailan**  
 Parquetak - Barnizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**Optica**  
*Avenda*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
 SAN INAZIO 94 475 11 24

www.bilbohiria.com

**BI-96.0-FM**  
*Bilbo Hiria irratia*

berriak \* musika  
 elkarrizketak

**BREST**

kafetegia

Blas de Otero, 5  
 Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 94 600 14 24  
 alonsoper@euskalnet.net

**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

**KABIA**  
 GASTRONOMIA • TABERNA • KULTURA

ORIXE KALEA 48  
 SANI

1924tik Deustun

**Tintorería**  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
 jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
 euskara zerbitzua

**Probatu herrizki.eus**

ANDROID APP Google play App Store

ERRODOKO BARRUTIA GOBIERNO VASCO BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskaltea

Matrikula zaitzez! **aek**

Iragar zaitetz

**Prest!**  
 -en

tel. 94 447 10 42  
 bilbokoaldizkariak@gmail.com

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

**Sabin**  
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23




Gabonak, inauteriak eta  
jaiak, Deustun elkarren  
segidan. Abantaila  
ala desabantaila?



**Ander  
Deustu**

Abantaila, udan jende asko kanpora joan ohi delako eta neguan zeregin gutxiago egoten delako. Gainera, batetik bestera tartea dago prestaketarako.



**Josune  
Deustu**

Negu gorria eta udaberri hasiera aurrera eramateko abantaila da hainbeste ospakizun eta jai izatea Deustun.



**Maite  
Deustu**

Eguraldi hotza eta euria dira desabantaila. Abantaila, berriz, data horietan ez dagoela beste jairik inguruan.



**Ander  
Arangoiti**

Hainbeste parranda egunetarako poltsikoan behar beste diru ez izatea, horixe da desabantaila bakarra.



**Imanol  
Trapaga**

Gure herrian planik ez dugunean Deustura etorri ohi gara parrandara, beraz, guretzat abantaila da argi eta garbi.



**Gaizka  
Trapaga**

Abantaila. Neguan eta udaberrian Deustun ibiltzen gara eta udan Trapagan eta inguruko herrietako jaietan.



...RRIA-MENDIA-KIROIA-BERTSOAK-INTERNET-GASTRONOMIA-LITERATURA-MUSIKA-DANZA-ANTZERKIA-MENDIA-

# harkua bete berba

>> LITERATURA



## BILBOTIK ASKO DUEN 'JENISJOPLIN'

*Lehen hitzordua atzeratu ostean, Uxue Alberdi idazlea urtarrilaren 31n hurbilduko da Bidarte udaltegira Deustuko irakurleekin 'Jenisjoplin' bere azken liburua konpartitzera.*

**Testua:** Lur Mallea **Argazkiak:** Gorka Rubio / Argazki Press

Nagore Vargasen istorioa kontatzen du *Jenisjoplin* eleberrian (Susa, 2017) Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak. Pozik dago orain arte bere liburu "osoena" izan duen harrerarekin. Idazterakoan jarritako maitasuna "bueltan" jasotzen ari dela dio.

Egilearen hitzetan, "pertsonearen nobela" da *Jenisjoplin*. 80ko hamarkadan langile auzo batean jaiotzen den emakumearena hain zuzen ere. Nagore Vargas da bera, eta haurtzaroko baldintza makurrek identitate irmoa eta konplexua eraitzera daramate Nagore. 80ko eta 90eko hamarkadan garaiko giro sozial eta politikoarekin kontaktu zuzenean sartzen denean, errebeldia une batean, hautsi egingo da, eta ordura arteko identitateak ez dio balioko. Estrategia berriein aurrera egiten ikasiko du.

Liburu guztian badago alde-raketa bat protagonistaren

egoera eta garapenaren eta Euskal Herriko azken hiru hamarkadetakoa gertaera politikoen artean. Uxue Alberdiren esanetan, bi bideek "bat egiten dute".

Orriek aurrera egin ahala, herritik hirira jauzi egiten du protagonistak. Alberdik "ondoan" ezagutzen duen hirira, Bilbora. Idazleak gustuko du idazterakoan "espazioak menpean izatea", ziurtasuna ematen diolako. Bilbon bizitakoa izaki, "Bilbotik asko du" eleberriak. "Liburu intentsoa, bizia, ekintzaz betea, aldi berean zikina da, ilune-

tik ere badaukana eta garai bateko Bilbok bat egiten du tonu horrekin".

*Jenisjoplin*-ek izan duen erantzunarekin ezin du kexatu. Oso harrera ona izan du eta izaten ari da liburua. Oso pozik dago "jendeari gustatzen ari zaiolako". Edozein lanetan %100na ematen saiatzen bada ere, kasu honetan %100na eman du "denbora luzean, egunero eta oso modu intentsoan; ordaina ere halakoxea izaten ari da". Maitasun handia jarri du lanean eta maitasuna jasotzen ari da bueltan.

Bere lanik "osoena da" orain arte idatzi duen guztiaren aldean. Pertsonaia kopuru aldetik orain arteko handiena da nobela, gaitegi aldetik, espazio aldetik, sekula ez du hainbeste dialogatu eta hainbeste erregistro desberdin erabili. Askoz gozatu du idazten, asko ikasi du, eta orain arteko bidean ikasitakoa aplikatzen saiatu da.

Egunotan deskantsuan ari da Uxue. Izan ere, nobelaren amaierari, promozioa eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia batu zaizkio. Hortaz, hutsaldiaren ostean, orain "betetzea" dagokio, "bizitzea, irakurtzea...".

Ez du proiektu zehatzik esku artean, baina letrekin harreman jarraitua izan du beti, nahiz fase desberdinak izan.

Hurrengo proiektua ez da urruti ibiliko.



# CEIP SAN INAZIO HLHI

ZURE ESKOLA PUBLIKOA  
2 URTETIK AURRERA  
D EREDUA



MATRIKULAZIO EPEA: Urtarrilaren 29tik  
Otsailaren 9ra

ESKOLA ZABALIK EGUNA: Urtarrilaren 31n, 17:00  
ETORRI GU EZAGUTZERA!



Kantabria 2, 48015. Tel: 944758364

014924aa@hezkuntza.net // [www.saninazioikastetxea.com](http://www.saninazioikastetxea.com)

## HATOR EZAGUTZERA!

*Deustu ikastetxea*  
*Haur eta Lehen Hezkuntza*



Blas de Otero, 66 Deustu 48014 Bilbao



0- 2 urte : 94 475 29 44

2-12 urte : 94 475 49 55

*D eredua*

*Euskal eskola publikoa zure arzoan*

Epea: urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra





## ONDO PASATU ETA KLIXEAK APURTU

*Hogeita bost urte bete ditu Akatz taldeak kontzertu oso berezi batekin. 2018an kontzertu gutxiago eta lokaleko lan gehiago egitea erabaki dute taldekideek.*

**Testua:** Lur Mallea

**Argazkiak:** Akatz / Jassh Photography

Kontzertu berezia iragarri zuten, eta horrelaxoxea izan zen. Errepikaezina. Akatz taldeko lagunek ezusteko itzela eman zieten jarraitzaileei 25. urteurreneko kontzertuan, joan den urtarrilaren 5ean Kafe Antzokian. Hainbat lagun eta gonbidaturen artean La Otxoak zur eta lur utzi zituen za-

tindu bitartean. Unai Quecedo *Bita* kantariaren esanetan, “heroi asko izanik”, mende laurdene-ko ospakizun handirako mundu mailako musikariren bat ekar zezaketen, baina horren ordez, “bertako artista handi bat” gonbidatzea erabaki zuten. Izan ere, zaleen artean *skinner* piloa ditu

nahi zuten Akatzek. Baita lortu ere. “Oraindik jendea irribartsu esnatzen da kontzertua burura datorkionean”, dio Bitak.

25 urteren ostean, aurrera jarraitzeko gogotsu dago Akatz. Bitaren hitzetan, “honaino heldu bagara zoezer gehiago egingo dugu”. Urteurreneko kontzertua pasata, taldeak aurtengo bide-orria adostu du urte hasieran egin ohi duen “batzar nagusian”. “Izugarrizko helbururik” inoiz izan ez arren, bederatzi taldekideren “lana eta familia antolatu beharra dago, horrek taldean eragiten duelako”. Batzarrean, “zelako negua eta zelako uda” izango duten erabaki dute. Kontzertu gutxiago eskainiko dituzte –uda baino lehen Oiartzun, Zaragoza eta Santander, besteak beste, eta udaren ostean Madril eta Bartzelona– eta lokaleko lanari ekingo diote, abesti berriak egiteko. Baina ez da gauza ziurra, astero biltzen den bederatzi laguneko taldean “erabakia hartu eta hurrengo astean bertan behera gera daiteke, beti gauza berriak sortzen direlako”.



leak. Akatzek La Otxoaren abestiak jo zituen berezko duen ska, reggae, jamaikar estiloen, Jose Antonio Nielfak bere *hits*-ak as-

bandak eta horietako hainbat “maritxuloak”. Ondo pasatzearekin batera, taldearen helburu nagusia, “hainbat klixe” apurtzea



## barkua bete herba

Ez dute ideiarik falta. Iskanbilarik ere ez, barre artean diotenez, noren ideiak lehenago landu erabakitzerakoan. Ideiak lokalera eramane eta bertan pixkanaka forma ematen diete. Askotan, ideia nahiko osatuak dira, melodia zehatz bat edo hitz zehatz batzuk. Orduan, hasten da apainketa fasea, “guztioak abesti hori gure sentitzeko, nor bere zertzeladak ematen dizkio”. Horrela lortzen dute abestiarekin “gehiago enpatizatzea”. Eta sei-zortzi abesti sortuta dituztenean ekiten diote “lan kontzeptualari”, “abestiak lotuko dituen ideia, nahi edo irudiaren bila”. Urte oso bat edo bi eman ditzakete konposatzen eta moldaketak egiten, bukatu arte.

Kuadrilla baten barruan sortu zen Akatz taldea 1992an Bakion. Azkar hazi zen taldea. Hiru urtetan bospasei izatetik hamaika taldekide izatera ere ailegatu ziren. Kuadrillatik kanpokoak, hurbilean zeuden musikariak, “oso era naturalean” moldatu dira taldera.

Taldean luze mantendu dira, besteak beste, San Inazioko Bita, *american houses*-eko semea, eta Deustuko zubiko Oliver Munilla, tronpeta eta ahotsa.

Beti izan dute erreferentzia nagusi



Aste Nagusiko kontzertuetan zuzenean ikusten zituzten jamaikar taldeak –Skatalites, Toots, Gregory Isaacs, Steel Pulse, Linton Kwesi Johnson–, eta batik bat, horien metalezko instrumentuak. “Guk euren antzekoak izan nahi genuen”, gogoan du Bitak. “Soinu hori nahi genuen, eta horretarako metalezko instrumentuak izatea beharrezkoa zen”. 25 urteren ostean, normalizat jotzen du gaztetan besteen soinua lortu nahi izatea. Gero, bidean, “konturatzeko zure soinua aurkitzean datzala erronka nagusia”. Akatz bere soinua aurkitzen ibili da, besteez gandik ikasten, Jamaikan belau-naldiz belau-naldi igorritako herri

soinuak menperatu nahian, “oso zaila den arren”. Baina “ibilbide hori egitea oso polita da”.

Bilbon, Bizkaian eta Euskal Herrian “errespetu handiarekin” ibili dira jamaikar erritmo eta doinuak zabaltzen, kanpoko eta bertako sustraiak nahasten. Taldearen azken diskoan (*‘A Go Go 2’, Liquidator Music 2017*), esaterako, oso nabaria da Akatzen ikutu bereizgarria: “Sustraitik datozen soinuek norbaiten testigua jasotzen dute beti, eta ziur aski guk euskal tropikalaren lekukoa hartu genuen, eta guri dagokigu hurrengoari era natural batean ematea”.

zuzendaria:  
Getari Etxegarai

# MI ÚLTIMO BAILE

URTARRILAK 20tik AURRERA

GAZTE KONPAINIA  
**P6**  
PABELLOK 874  
ARTE ESZENARIOKOAN  
COMPANIA JOVEN





# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## KROKETA ZURI-BELTZA



*Botikazarreko Erriberako 22. zenbakian dagoen Aroa-Botikazar gastrotaskara joan gara oraingo honetan. Erlantz Aurrekoetxea sukaldariak bere sormen berrienak aurkeztu dizkigu, bi zapora eta koloretako kroketak.*

**Zailtasun maila:** handia

**Egiteko denbora:** 2 ordu

**Prezioa:** 6 kroketa 6€

**Berezitasuna:** hiru kroketa 'bikoitz' daude aukeran

### Kontu batzuk

Duela urte eta erdi zabaldu zuen Erlantz Aurrekoetxeak gastrotaska Botikazarrean eta balantzea "oso ona da, eta hoherentz goaz", dio. Ezagun egin dira bere kroketak, neurri handi batean, Deustuko Pintxo Txapelketan bigarren geratu delako bi urtetan jarraian bi kroketekin. Gabonetan ia 500 kroketa egitera iritsi da. Baina ez da dena kroketa Aroa-Botikazarrean, tortillak eta kafeak ere arrakasta handia dute bezeroen artean. Ostegun 'pikanteak' antolatzea izan da Erlantzen azken burutazioa, patata 'bravak' eta kroketa 'sutsu' izenekoak eskainiz.

### Aroa-Botikazarreko Erlantz Aurrekoetxea



ESPECIALIDAD EN TOSTAS Y CROQUETAS

**AROA-BOTIKAZAR**  
Gastrotaska by:

★ ★ ★

RIBERA BOTICA VIEJA 22 DEUSTO - BILBAO

RESERVAS:  
**TLF. 666.773.442**

### AROA-BOTIKAZAR GASTROTASKA

Botikazar Erribera 22 - Deustu - 666.773.442

Goizetan, asteleheneetik larunbatera: 10:00-16:00

Arratsaldetan, ostegunetik larunbatera: 19:00-23:00

Igandetan ixrita





## Zelan egin?

Kroketa bikoitzaren sekretua bi ore ezberdin egin eta elkartzean datza. Erlantz Aurrekoetxeak, lehenengoz, bexamela prestatzen du txipiroi birrin-dua erantsiz. Ondoren, *velouté*-a –barazki saldarekin egindako bexamela–,

eta txipiroi tintarekin beltzitzen du. Ontzi lauki batean oreetako bat botatzen du, eta hotzitzean, gainean beste ore. ‘Sagarrosti’ (odoloste eta reinita sagarra) eta alkatxofa-langostino kroketa bikoitzak ere eskaintzen ditu.

## OSAGAIAK

*Txipiroiak*  
*Txipiroi tinta*  
*Barazki salda*  
*Irina*  
*Esnea*  
*Gurina*  
*Gatza*



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean

**DEUSTUKO BATZOKIA  
1978 TIK**

C/ Hildodoro de la Torre, 5. 48014 DEUSTO  
TF: 94 405 06 58 BIZKAIA

## Restaurante Deustoarrak



Tfnoa: 94 475 41 54  
Faxa: 94 475 88 02

Madariaga etorbidea, 9  
48014 Deustu

www.deustoarrak.com  
deustoarrak@terra.es



*Pedro Curbullo Suárez*

**el viejo roble**  
\* CORPORAÇÃO \*

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

Ramon y Cajal 23



**Deustuko  
Ramon y Cajal kalean  
girorik onena!**

ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO



**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## JOSU OLEAGA

*Edozein*

### HARRI BITXIAK ERE HONDORATZEN DIRA

Beti pentsatzen dut gustuko nukeena baino gutxiago irakurtzen dudala, eta are gutxiago poesiaz hitz egiten badugu. Esku artean izan nuen azkena Bukowskiren bilduma bat izan zen, eta harrezkero ur asko igaro da zubi azpitik. Baina duela gutxi poesia-mugimendu berria aurkitu dut, emakumezko poeta gazteek osatua. Mugimendu hori blogetatik eta gizarte-sareetatik sortu da, eta horien bitartez eman da ezagutzera.

Emakumeok hizkuntza oso zuzena erabiltzen dute, gordina batzuetan, eta bete-betean jotzen dute zentzumenen eta sentimenduen erdigunean. Amodioa, desamodioa, sexua, maitasuna, bakardadea, tristura... guztia poesia lotsagabe eta samurra- ren koktel-ontzian nahasita. Triste egon eta ondo sentitzeko daukagun eskubideaz benetan gozatzea lortzen dute, askotan eskubide hori ukatu egiten baitigute eta beste askotan guk geure buruari ukatzen baitiogu.

Gehien gustatzen zaizkidanak aipatuko ditut, baina askoz gehiago dituzue: Elvira Sastre, Irene X, Sara Buho, Ana Barrero eta Irene G Punto.

Jo YouTubera, bilatu izen horiek, eta material asko aurkituko duzue, hala nola, zuzeneko errezitalen bideoak, asko musikarekin eta beste batzuk oso modu soilean grabatuta, lehen planoan emakumezko poetaren aurpegia ikusten dugula. Haien begiek hitz egiten dizute, asaldatu egiten zaituzte, eta poemaren hartzailera zeu zarela sentiarazten dizute. Guztiek dohain bat dute: berezi sentitzen zara, aurkitu dituzulako.

Utzi poesia horri lagun egiten, tristuraren alboan ondo sentitzen zaren neguko arratsalde ilunetan. Azken finean, Elvirak dioen moduan, "zurekin beti izan da dena ala ezer ez".



## MAIALEN AKIZU BIDEGAIN

*Elorri bertso-eskolako kidea*

### HILBELTZA

**Doinua:** *Maixu Ruanda*

Gabonen poz globala egin nuen neure, urtarrila ordea heltzen da xeobre. Nahiz egutegia den aldatzea lege, nahiz jarri errutina pizteko sei xede, astelehenak astelehen dira aurten ere.

Penak, pozak, prezio bereko ditugu, beraz poztu dezagun guk Deustu, Deustuk gu. 2018ak lekua hartu du. Urte on bat etorri zaigula seguru, ta ona ez bada "on" guk bihurtuko dugu.

# IKUSI ETA IKASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

ANTZERKIA • MAGIA • ZIRKOA • TAILERRAK • DANTZALDIA • HITZALDIA • KONTZERTU DIDAKTIKOA • IPUIN KONTAKETA

**01/29 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Basurtuko udaltegia, 18:00etan

**02/07 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Errekaldeko udaltegia, 18:00etan

**02/16 TOR MAGOA ☺**

Iruarteta ikastetxean, 18:00etan

**01/30 SUDURKERIAK ✂**

Begoñako udaltegia, 18:00etan

**02/08 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Castañosko udaltegia, 18:00etan

**02/17 KIKI PAILAZOA ☺**

Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan

**01/31 ZIRIKA ZIRKUS ☺**

Errekaldeko udaltegia, 18:00etan

**02/09 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Iruarteta ikastetxean, 18:00etan

**02/19 MOLDATZE TAILERRA ✂**

Basurtuko udaltegia, 18:00etan

**02/01 SORGIÑA TXIRULIÑA ☑**

Vda. de Epalza ikastetxean, 18:00etan

**02/10 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan

**02/20 MOLDATZE TAILERRA ✂**

Begoñako udaltegia, 18:00etan

**02/02 MOLDATZE TAILERRA ✂**

Azkuna Zentroan, 18:00etan

**02/12 HODEI MAGOA ☺**

Basurtuko udaltegia, 18:00etan

**02/21 MOLDATZE TAILERRA ✂**

Errekaldeko udaltegia, 18:00etan

**02/03 ABELTXURIAK ✂**

Deustuko Bidarte udaltegia, 11:00etan

**02/13 ZIRKAKA ANTZERKI TALDEA 🎭**

Begoñako udaltegia, 18:00etan

**02/22 XALTO PAILAZOA ☺**

Vda. de Epalza ikastetxean, 18:00etan

**02/05 ENAITZ IPUIN KONTALARIA ☑**

Basurtuko udaltegia, 18:00etan

**02/14 KURKULUXETAN KULTUR ELKARTEA ✂**

Errekaldeko udaltegia, 18:00etan

**02/06 BARRETERAPIA TAILERRA ✂**

Begoñako udaltegia, 18:00etan

**02/15 TXOBBORRO MAGOA ☺**

Vda. de Epalza ikastetxean, 18:00etan



Zure seme-alabekin euskaraz  
disfrutatzeko baliabideak sarean:  
**IKUSI ETA IKASI BLOGA**

Aholkuak, eskulanak, bideoak,  
esteka interesgarriak, zozketak...  
[www.ikusietaikasi.eus](http://www.ikusietaikasi.eus)



## intxixu ikastola


**HURBIL  
ZAITEZ!**



**MATRIKULA EPEA:** Urtarrilaren 29tik  
otsailaren 9ra arte.

**PLAZA DE MATRICULACIÓN:** Del 29  
de enero al 9 de febrero

Tel. 944759180 fax. 944755815  
zuzendaritza@intxixuikastola.net  
www.intxixu-ikastola.net  
Kanariar Uharteak 71 – 48015 Bilbo



**¡CONÓCENOS**

**ATEAK ZABALTZEKO EGUNA:** Otsailak 3, larunbata (11:00-13:00)  
**BATZAR INFORMATIBOA** 11etan eta **BISITA GIDATUA** 12:00etan

**DÍA DE PUERTAS ABIERTAS:** Sábado 3 de Febrero (11:00-13:00).  
**REUNIÓN INFORMATIVA** a las 11:00h. y **VISITA GUIADA** a las 12:00h

- Ikastetxea kudeatzeko sistema
- IKT eredia, Sare Hezkuntza
- Eleaniztasun proiektua (4 urtetik Aurrera)
- Jantoki zerbitzua eta loaldia
- 8:15 etik goizeko zaintza zerbitzua
- Escola orduz kanpoko ekintza ugari
- Liburutegi zerbitzua
- Udako tailerrak

- Sistema de Gestión de Calidad
- Sare Hezkuntza- Modelo IKT
- Proyecto de Tratamiento de Lenguas (a partir de 4 años)
- Servicio de comedor y siesta
- Servicio de cuidado de alumnos/as desde las 8:15
- Amplia oferta de actividades extraescolares
- Proyecto de Biblioteca
- Talleres estivales





**Egindako  
lanaren etekina ikusi eta  
harro sentitzen da bat.**

*Marra Calvo Fernandez*  
Gasteiz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ORONA IDEO** • URTARRILAK 27

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI** • OTSAILAK 1

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE** • OTSAILAK 3

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**BIDASOA** • URTARRILAK 27

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**OÑATI** • OTSAILAK 1

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**BILBAO** • OTSAILAK 8

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZA** • OTSAILAK 17

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA** • OTSAILAK 17

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA

Basque Culinary Center

**DONOSTIA** • OTSAILAK 15

OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO  
ZARELA  
JAKINARAZI!

